

# Berriketan

Debako herri aldizkaria - 198. alea - 2015eko uztaila




**Magia ikuskizuna,  
txikien gozamenerako**



**GENOVEVA**  
Arraindegia

Ostolaza Kalea 25.  
20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Telf.: 943 191 818



**ZALBURDI**

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

**Mikel**

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasak
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206  
Tel.-faxa: 943 191 774  
Hondartza, 10 - behea  
**20820 DEBA (Gipuzkoa)**  
mikeliturgintza@euskalnet.net  
www.mikeliturgintza.com

**A**  
**D**

**ASESORIA DEBA C.B.**  
JURIDIKOA - LABORALA - FISKALA - ASEGURU KONTABLEA- HIGIEZINAK

Miren Lore: 669 895 617  
Eduarne: 669 895 619


Tel.: 943 192 127  
HONDARTZA, 2 - BEHEA Fax: 943 192 482  
20820 DEBA (GIPUZKOA) ase.deba@telefon.es

**atari**  
etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURUAK, ABOKATUA  
Lersundi 1. behea 20820 - DEBA  
Tel: 943192263  
www.atarideba.com

**Lizaso**  
Autozerbitzua

Lersundi Kalea, 31  
Tlfnoa: 943 19 27 29



**ITXAS GAIN**  
Taberna  
**ITXAS GAIN**

Hondartza ondoan  
Urte guztian zabalik

Natarroa Plaza • Tlfnoa.: 943 192 576  
20820 DEBA

**oskarbi**

Pintxoak  
Ogitartekoak  
Plater Konbinatuak

Lersundi Kalea, 9  
Tel. 943 029 486 - 818 844 014  
20820 DEBA (Gipuzkoa)



**ALBIZU**  
HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

**IGARZA**  
TABERNA

Ostolaza, 5  
DEBA  
Tel.: 943 191 197



**IZENBE**

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak

Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA



**Seven Clovers**  
Irish pub

Gozatu gure garagardoa

Hondartza, 11 • 20820 DEBA • Tel. 943 191 295

**Bar LOREA**

“Orotariko tartak etxean eginak”

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095



**MAXI BAR**

Lersundi, 28  
Tel.: 943 191 206  
Deba (Gipuzkoa)



**Bordatxo**  
JATETXEA

Berezitasuna Parrilan:

- Asteburuko menuak - Parrilan menuak - Mokadu eta pintxoak
- Plater konbinatuak - Etxera eramateko jakiak - Ospakizunak

Zesterokua Plaza  
Tel.: 943 029 376  
Bazkariak: 13:00 / 16:00  
Afariak: 20:00 / 23:00

Ifar kalea, 12 behea  
20820 Deba

Telefonoa: 943 19 13 83

Aldizkariaren e-maila:  
[berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com)

Elkartearen e-maila:  
[koordinatzailea@zuhatza.com](mailto:koordinatzailea@zuhatza.com)

#### Argitaratzailea:

Zuhatza Euskara Elkarte  
Erredakzio taldea eta  
kolaboratzaileak:

Nagore Dorronsoro, Xabier Laka,  
Ina Oiartzabal, Koldo Aperribai,  
Lukax Dorronsoro, Izaro  
Aulestiarte, Ibon Urkia, Maite  
Rodriguez, Gilen Garcia, Eider  
Zulaika, Idoia Gereñu, Goizane  
Aizpurua, Haika Aizpurua,  
Nekane Goikoetxea, Mattin  
Urbietza, Mikel Aizpurua,  
Debako Gazte Asanblada,  
Mendata BHI-ko prentsa tailerra.

#### Koordinatzailea:

Izaro Aulestiarte

#### Azaleko irudia:

Erredakzio taldea

#### Publizitatea:

Joseba Escudero eta

Koldo Aperribai

Tlfnoa.: 943 19 13 83

#### Logotipoaren diseinua:

Iñaki Elosua

#### Maketazioa:

Leire Rubio

#### Inprimategia:

Euskalinpri

#### Tirada:

1.400 ale

#### Lege gordailua:

SS-246-2009

ISSN 2171-7656

#### OHARRA:

*Berriketan*-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak gehienez 25 lerro izan beharko ditu eta [berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com) helbidera bidali beharko dira, hilabeteko azken astelehena baino lehen.

#### ARGITARATZAILEA



#### LAGUNTZAILEAK



Debako Udala



HEZKUNTZA, ENJUNTAZ POLITIKA  
ETA KULTURAREN SAHIA  
HEZKUNTZA, ENJUNTAZ POLITIKA  
ETA KULTURAREN SAHIA



Gipuzkoako  
Foru Aldundia

# aurkibidea

## 06-08

### KOLABORAZIOAK

Debako Gazte Asanblada,  
Goizane Aizpurua  
(“Konbinaketak”)...

## 11

### ELKARTZIKETA

Kulunka Dantza Taldea ETBko  
Gu Ta Gutarrak saioaren  
finalean



## 12-13

### KIROLOAK

Itxasmila Igeriketa Zeharkaldia,  
Surfing Deba Festa, Amaiak  
Bat taldearen urteko batzarra...



Ander Salegi

## 14-15

### KULTURA

Aitor Etxeberria pintorearen  
erakusketa elizako klaustroan,  
Aitor Oñederraren lan bat  
Kimuak katalogoan...



## 16-17

### LABURRAK

“Hodei Magoa eta Tiritatxo”  
ikuskizuna, Mintzalagunen  
ikasturte amaiera...



## 18

### ZERBITZUAK



*Berriketan*-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: [berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com) edo [koordinatzailea@zuhatza.com](mailto:koordinatzailea@zuhatza.com).

## Irati

Sorginetxeko nire pirata... bakoitzak modu batez agurtu zaitu eta nik agurtu nahi ez bazaitut ere, nire hitzik goxo eta beroenak eskaintzera natorkizu gaurko egunean. Zenbat maite zaitudan oihukatu nahi diot munduari.

Gazte ginelarik ezagutu genuen elkar. Baita maite-mindu ere. Nire lehen maitasun istorioa, lehen muxua, sekula ahazten ez diren harreman horietako bat bizi izan genuen. Eta hortik aurrera bizi izan dugunak gure sekretua izaten jarraituko du. Baina jakizu gure arteko maitasun hau ez dela hemen bukatzen, handitzen jarraitzen du, ez baitzaitut sekula ahaztuko.

Gogorra eta zaila da aurrera begiratzea. Baina atzera begiratuz, nahiz eta begiak malkoz bete, zure oroitzapena polita eta alaia da. Zenbat barre egingo ote genuen zurekin. Bromazalea, abenturazale, musikari, dantzari, zure aurpegiko

keinuak, inauterietako zure mozorroak, negu hotzean kamiseta hutsean, karta jokoetan aditua, hondartza aldean patinatzen, edonora bizikletan flautina bizkar atzean, burugogorra zenbaitetan... irentsi aurretik zenbat aldiz murtzikatu behar zen janaria?

Harro nago zu ezagutu izanaz, zure bizitzaren parte izanaz, zure izaeraz. Eta zu hala egon zaitezke zauden tokian, laga duzun aztarna handia da herrian, eta ezin uka daiteke oso maitatua zarela, zer esanik ez zure familia eta koadrilako laguneren artean.

Betiko bihotzean, Irati. Egunen batean izarren artean elkar ikusiko dugulakoan, muxu eta besarkadarik beroenak. Maite zaitut.

*E.S.*

## Deva La Bella. Argi eta garbi

Hilabete inguru pasa da jada herrian alkatetza berria dugunetik. Udal gobernu berriak hartutako lehen neurria (bere hauteskunde programari jarraiki), "Nahi ez dugun herria"-rekin amaitu eta Deva garbi baten bidean herri sarreran eta beste zenbait lekutan zeuden mural politikoak ezabatzea izan da. Mural politikoak bai, mural politikoak soilik, izan ere ez dituzte hauen inguruan zeuden graffitiak, herriko bazter guztietan ikus ditzakegun sinadura irakurtezinak edota nonahi ikus daitezkeen nerabeen ausazko zirriborro bihurriak ukitu, itxuraz hauek guztiak onartuta daude Deva La Bellan. Bistakoa da, beraz, egindako garbiketa garbiketa selektiboa izan dela, "purga" politiko-ideologiko bat, olatuaren txanpak ahalbidetutako indar erakustaldia.

Honen adibide garbia hondartzan aurkitu dezakegu, jada herriko klasiko bat bilakatu den "Freedom for the Basque Country" eta bere magalean zegoen "Birziklatu, berrerabili, murriztu" muraletan. Kasu honetan, margoketa guztia borra-

tu gabe, mezuaren ezabaketa partziala burutu dute, interesatzen ez zaien "zati politikoak" soilik garbituz. (Gure herrira gerturaten diren turistek deabruaren mezu maltzur horiek ikusi ez ditzaten, badaezpada ere...). Dirudienez ikurrinadun Euskal Herriko silueta onartutako espekto politiko-folklorikoaren barruan sartzen da. Baina hau ez da izan adibide bakarra, herriko sarreran zeuden beste bi muralak ere pintura txuriz izan dira estaliak (Bai... Devako pareta desgastatuenean ranking-ean lehen postuetan dagoen horma zahar horretan zeuden bi mural horiek...). Hala ere, kasu honetan ere ez pentsa inguruko firma desitxurosoak borratu direnik. Deva garbirako erabiltzen ari den egintza protokolo bitxi hau ikusita, badago udala zoratuta dagoela pentsatu dezakenik, baina hau ez da zoro kontua, ezta txukuntasun kontua ere. Argi eta garbi dago, egindakoa garbiketa politikoa da, udalak badaki pinturara txuria non gastatu.

*Alex Turrillas Gonzalez*



ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta

## Eritrea: badira hamabost urte

Azken boladan etengabeko albisteak datozkigu Mediterraneo aldetik. Gero eta gehiago dira, beraien herrialdeetatik ihesi, Europarako bidaian abiatu eta bidean bizia galdu dutenak. Beste batzuk, berriz, kostaldera iritsi bai, baina ez dute lur abegikorrik aurkitu. Ez ditu inork, hondartzan lehorreratutako balea bezala, urez igurzten, aitzitik, hesiak edo armatutako pertsonak aurkitzen dituzte.

Itsasertzean daudenen artean, Eritreako gizon emakumeak ditugu. Zuetako batzuek, nik bezala, 2000. urtean kokatu zenuten Afrikako herrialde txiki hori, Etiopiarekin izandako guda tarteko. Garai hartan, su-eten sasoiaren bertan lanaldietan parte hartzeko aukera paregabea izan nuen nik. Esperientzia gogorra bezain aberasgarria izan zen hango errealitate gordina ezagutzea. Orduko irudiak dira gosetearen haur beltz, tripa handi eta euliz inguratutakoak. Haurren erabilpen hori egiten zen sasoi horretan, egia da, baina zoritxa-

rez, Afrikako biztanlegoaren bizi-baldintzak ez dira orduztik hona asko hobetu. Bestela, beraien bizitza arriskuan ipini eta Europara etorriko zirela uste al du inork?

Bihotzean min hartzen dut, kostaldera pertsonen uholdea iritsi eta baleei baino laguntza gutxiago eskaintzen diegula pentsatzean. Gogoan dut Eritrean egiten ziguten ongi etorria "irrintzi" eta guzti. Aitortu behar dut, errefuxiatu kanpamentu bat bisitatzea joan ginen batean, bertako haurrak ni ikustean (azal zurikoa) erabat izutu ziren. Ez dut halakorik sekula sentitu: munstro bat nintzela, alegia.

Hala ere, pentsatzen hasita nago, hondartzetan ez aurrera ez atzera geratu diren pertsona beltz horientzat, ez ote garen haur haiek ikusi zuten munstro zuri bera. 15 urte pasa dira eta guztiok betiko tokian lepoa.

*Itziar Arana*

## Hizkuntza-eskubideen urraketa osasungintzan

Kaixo, lagun:

Osasun alorrean hizkuntza-eskubideen urraketa etengabea da eta egoera hori okertu egiten da nabarmen hainbat momentutan, zerbitzuen berrantolaketak edota langileen ordezkapenak euskara kontuan hartu gabe egiten direnean, besteak beste. Uda garaian arazo horiek handitu egiten dira. Adibidez, iazko udan langile elebidunak erdaldunekin ordezkatu ziren hainbat kasu ezagutu genituen. Aurten, egoera hori errepikatu ez dadin, prebentzio lana egin dezaten eskatu diogu Osakidetzari zein Osasunbideari hainbat eragilek: Kontseiluaren baitan bil-tzen garen osasungintza lantaldeko (Behatokia, EHE, Osasungoa Euskalduntzeko Erakundea, Topagunea eta UEMA) kideekin batera, LAB sindikatuak, Medikuntzako Asanbladak eta Berdin elkarteak.

Herritar eta langileoi dei egin nahi dizuegu zuen osasun asistentzia euskaraz jaso edota lanean euskaraz aritzeko zailtasun edo oztopoak baldin badituzue, zuen kasua jakinarazi dezazuen. Horretarako gure webguneetan formulario bat

betetzeko lotura izango duzue; informazioa guri helarazi, behar diren bitartekoak har ditzagun. Formulario honekin osasun zerbitzuetako langile zein erabiltzaileei ordezkapen masiboen garaiari zuzen kezkak egiteko bidea erraztu nahi dizuegu. Izan ere, ohikoa denez, hauen kudeaketa Hizkuntza Eskubideen Behatokiak egingo du, horrela dagokion kasuetan. Gure helburua osasun etxeetan gertatzen diren egoeren berri modu azkarrean jasotzea da.

Herritarrok osasun asistentzia euskaraz jasotzerako orduan dituzuen arazoak jakinarazteko bidea errazteko asmoz, formularioa sortu dugu, ondoko webgunean: [www.euskarazbizinahidut.eus](http://www.euskarazbizinahidut.eus).

Osasun arreta euskaraz jaso ez duzulako kezarik baduzu, jakinaraz diezaguzu.

*UEMA, EHE, Behatokia, Kontseilua, Osasungoa Euskalduntzeko Erakundea, Euskaltzaleon topagunea, LAB, Medikuntzako asanblada, Berdin elkarteak*



## Zenbat eta jende eta iritzi gehiago...

(A)- Apa, Mikel!

(B)- Aspaldiko, Ane!

(A)- Ze moduz? Nolatan eztezutela aurten asanbladakuek Galerna Festarik antolau ber?

(B)- Badakizunez, auzolanen bitartez gaztetxe osua eraberritzen gabiltza, eta oraingoz lan guzti honekin oso lanpetuta gaude. Ez al dezu ikusi gaztetxia nola gelditu dan kanpotik?

(A)- Bai, enterau naiz auzolanian zabilizatela baina eguraldi ona dala ta ezin izan naiz agertu. Badakizu, hondartza, pista...

(B)- A bai? Ni ere goizero juten naiz hondartzara, eta gero eguardi-arratsaldian gaztetxian agertzen naiz lan pixkat itera.

Gainera ez pentsa dena lana bakarrik dala, ondo pasatzeko aukera ere badao, adin ezberdineko jendiakin harremanak sendotzen ditugun bitartian.

(A)- Ba ezta plan txarra!

(B)- Hala ere, asanbladan denon artian erabaki degu Galerna Festarik ez antolatzia. Galerna Festaren atzian lan asko dago, ikusi ez arren, ta guri ere holako egunak asko gustatzen zaizkigun arren, gaztetxian obra dala ta aurten ez da posible izango. Hala ere, ezer ez da ezinezkoa ta asanbladara jende gehiago azalduko balitz Galerna Festa eta askoz ekintza gehiago antolatzia posible litzake. Ez al dezu uste?

(A)- Ba agian arrazoa dakazu. Asanblada ze izaten da, ostiraletan?

(B)- Bai, ostiraletan gaueko 22:00etan. Zatoz zu ere, zenbat eta jende eta iritzi gehiago, orduan eta ekintza gehiago burutuko ditugu!



*Maialen Baroja*

## ARGAZKI ZAHARRA



### “Arraga” koplari eta bertsolaria

“Debak izan duan koplari eta bertsolariarik onenetakoa, Jose Mari Salegi Egaña “Arraga”, 1897an jaioa eta 1965eko uztailaren 14an hila.

Aberedun oso bikaina, eta nahiko sari irabazitakoa.

Argazkian, Mutrikuko sari-keta batean”.

Luis Garatek eskainitako irudia (data zehaztu gabea).

Iturria: “Egun Zaharretako Deba” liburua (1977ko otsailen kaleratua).



# GOIZANE AIZPURUA

## KONBINAKETAK

Beste behin ere leihotik kaleko ahotsak sartzen dira etxera: “Joder que bien vives”. Eta beste behin ere halako esaldi bat, behin eta berriz. Behin eta berriz batzuek errepikatu eta besteok entzuten dugun esaldia.

Sarritan entzuten ditugu halako esaldiak: hi bizi haiz hi, earki bizi haiz hi, ondo bizi zea zu... eta beste horrenbeste antzeko ideia-  
ren ingurukoak guztiak. Gaixki bizi al dira ba esaldi hori ahoskatzen dutenak? Ondoegi bizi ote dira esaldia entzuten dutenak? Zerk bultzatzen ditu esaldi hori esatera? Zerk behartzen gaitu esaldi hori entzutera?

Askotan neure burua izan dut esaldi horien hitzen hartzaile eta neure buruari esaten diot: “Bai, ondo bizi naiz, zergatik ez nitzake ondo bizi beharko? Baina eta zu, ez al zara ondo bizi? Neuk ez zaitut batera gaizki ikusten”.

Egoera horietan zalantza egiten dut ea bere bizia eta nirearen arteko konparaketa sakon

bat egin ote duten eta zera ondorioztatu: neure bizia beraiena baino hobea dela. Ezberdina izango da, baina ez horren ezberdina ziur aski. Oinarria antzekoa izango dugu baina detaile xumeak ezberdinak, horrek egingo baitu funtsean norberaren eta besteen bizitza ezberdina.




Hobea, eskasagoa. Bizia bizitzeko era ezberdin asko daude. Bide ezberdinak daude eta, hein batean, nahiz eta mota bateko edo besteko bizitza bizitzera behartuak gaudela pentsatu, ibilbidean egin ditugun aukeraketa ezberdinen emaitzan bizi garela uste dut nik (nire uste xumean). Norberak bere bizia eta denbora eskuartean dauzka, bata bestearekin egin daitezkeen hamaika mila konbinaketen hamaika mila emaitza zain.

Norberari, besteek egindako konbinaketen arabera, ederki bizi dela iruditzen bazaio... Konbinaketan asmatu ez dutenaren susmoa hartzen diot.

## Itzala galdu zuen zuhaitza

(Alzheimerraren bilakaerari buruzko metafora, Oyakudachi-ren izen bereko idazkian oinarritua)

Biziaren zuhaitza jaiotzen eta hazten doan neurrian, bere oroiak eta esperientzia guztiak hostoetan jasotzen joaten da, liburu batean bezala. Urtez urte, udaberriko argiarekin esnatu, adarretan kimu berriak eman eta, gorantz hazten doa distiratsu. Hostoz eta hostoz estaltzen doa zuhaitza, eta, hostoak oharrez, anekdotaz, pozez eta maitasunez, seme-alaben, biloben, adiskideen jaiotzea adieraziz, ez itzultzekotan joan zaizkigun adiskide eta senideen berri tristea emanaz doa betetzen, aldi on eta txarrak dituen bizitzaz.



Udan, bere adaburu oparoak gerizpe atsegina eskaintzen digu, oroiak ugariren idatziz egina. Bere orriak irakurtzen ari ohi da zuhaitza, eta, gerizpean esertzen bagatzaizkio, bere esperientzien eta burutapenen berri ematen digu. Tokirik egokiena da ikasi eta hausnartzeko.

Udazkena helduan, loditu egiten zaio enborra, eta, eraztun bat gehitu zaio; bizitzaren historia jasoa duten pergaminoak balira lez antolatua dituen eraztunak, azken urtearen bilakaera ere jasoz.

Negua datorrenean, loaldi gozoan sartzen da zuhaitza, udaberriko eguzkiaren lehen printzak arte atseden hartzeko.

Udaberriak esnatzen duenean, pergaminoak berrirakurtzen ditu, hosto berritzen ari den bitartean.

Udazkena aurrera doan heinean, oharrak idazten laguntzen diot maitekiro, enborrak jarrai dezan bere izeneko pergaminok betetzen. Heldu da negua, baina, zuhaitzak ez du lotara joan nahi; asaldaturik dabil eta arina du loa. Gogokoena duen pergaminoa hartu eta lehen hitzak irakurri ditudan orduko, lasaitxoago nabaritu du bere burua. Neguko unerik gogorrenetan babestu egiten dut hotzetik eta intsektuetatik, ongarriz diot lurra...


Urteak joan eta gero, udaberria helduz, ahaztu egiten zaio hostoetan oharak idaztea. Adaburuan

urri dituen hostoak eta hitz gutxi haizetan idatziak. Saiatzen da eraztunetan oroiak bila, berrirakurtzen dituen pergamino zaharrak nor den jakiteko, baina geroz eta indar gutxiago du barnera begiratzeko. Pergaminoak nahasian daude eta zuhaitza noraezean.

Uda heldu denean, hosto gutxi eta burutapenak urri dituen gerizpea labur. Irakurri dituen bere hosto bakanak, bere hitz urriak. Saminez dut gogoan honen lehengo gerizpea; baina, hala ere, bere ondoan eserita jarraitzen dut, hau baita zuhaitzaren kutunena. Hostoak bakan baditu ere elkarrekin berrirakurtzen ditugu, eta, nik erantzen dizkiot falta zaizkion hitzak. Badakit entzuten ari zaidala, eta, bere itzalean irakurtzen ari naizen artean, bere oroimenak bizirik dirauela. Neu naiz orain pergaminoetan bilaka nabilena, eta, batzuetan, berrirakurtzerakoan, adarren bat mugitu egiten zaio, oraindik ere burutapen bat idatzi nahi balu bezala.

Hurrengo udaberria helduz, nekez ateratzen zaizkio hosto bakan batzuk, eta, neuk idazten dut haizetan; neuk aukeratzen dituen pergaminoan idatzi beharreko historiak ere. Begiratu galdua nabari zaio zuhaitzari, eta, zail egiten zaio hitz egiten diodanean erantzutea, entzun ez balit bezala. Atzo gorantz begira zegoen zuhaitza eta, neuk ere hala egiterakoan, ohartu nintzen txoriren batzuek habia egina zutela adar soilduetan, gerizpea egiten hari laguntzeko. Txoriek alaitu egiten dute zuhaitza beren txorrotzioekin..., baina nire zuhaitz maiteak galdua du bere itzala eta, nor naizen ez badaki ere, alboan esertzen natzaio, behin batean bere gerizpe bikaina oparitu zidan tokian. Bere enborrean tinkatua, bere pergamino gogokoan irakurtzen dituen eta, ekaitzak ekaitz, orduak ematen ditugu elkarrekin bizitako historietan barneratuak.

Hurrengo udaberria helduz, nekez ateratzen zaizkio hosto bakan batzuk, eta, neuk idazten dut haizetan; neuk aukeratzen dituen pergaminoan idatzi beharreko historiak ere. Begiratu galdua nabari zaio zuhaitzari, eta, zail egiten zaio hitz egiten diodanean erantzutea, entzun ez balit bezala. Atzo gorantz begira zegoen zuhaitza eta, neuk ere hala egiterakoan, ohartu nintzen txoriren batzuek habia egina zutela adar soilduetan, gerizpea egiten hari laguntzeko. Txoriek alaitu egiten dute zuhaitza beren txorrotzioekin..., baina nire zuhaitz maiteak galdua du bere itzala eta, nor naizen ez badaki ere, alboan esertzen natzaio, behin batean bere gerizpe bikaina oparitu zidan tokian. Bere enborrean tinkatua, bere pergamino gogokoan irakurtzen dituen eta, ekaitzak ekaitz, orduak ematen ditugu elkarrekin bizitako historietan barneratuak.



STOP ALZHEIMER DENON ERRONKA

Jose Luis Albizu – Lukax Dorronsoro



## Hamar batzorde informatzaile eratu ditu Debako Udal gobernua

**Debarren Ahotsa eta EAJk osatuko dute gobernu batzorde berria. Uztailaren 2an egindako udalbatzarrean onartu zuten 10 batzorde informatzaile eratzea eta hauen gidaritza udal gobernua osatuko duten Debarren Ahotsa eta EAJren artean banatzea.**

Pasa den ekainaren 13an hartu zuten kargua 2015-2019 agintaldian Debako udalbatza osatuko duten zinegotziek eta uztailaren 2an (osteguna) burutu zuten lehenbiziko bilkura, ezohikoa. Bertan, Udaleko batzordeak zehaztu eta batzordeburuak izendatu zituzten.

Debako Udaleko Gobernu-batzordea Debarren Ahotsa talde politikoko hiru kidek (Pedro Bengoetxea alkatea, Aitor Salegi eta Ane Miren Egidazu) eta EAJko bi ordezkariak (Cristobal del Corte eta Unai Lekube) osatuko dute. Lau alkateordeak, berriz, hauek izango dira: Cristobal del Corte (EAJ), Marilu Albizu (Debarren Ahotsa), Aitor Salegi (Debarren Ahotsa) eta Iñigo Cambronerok (EAJ).

Deba Musikal Patronatua eta Artisau Irakaskuntzen Zentroko Patronatua Iñigo Cambronerok (EAJ) eta Ane Miren Egidazuk (Debarren Ahotsa) zuzenduko dituzte.

Aldeko zortzi botorekin -Debarren Ahotsako bost eta EAJko hiru-, eta EH Bilduko bost zinegotzien abstentzioarekin, batzorde informatibo iraunkorrek zeintzuk izango diren ere onartu zuten plenoan. Alboko koadroan ikus ditzakezue batzordeak eta batzorde horietako arduradunak.

Bestetik, alkatea lanaldi osoan arituko dela jakinarazi zuten ezohiko bilkuran, eta jasoko duen soldata gordinaren zenbatekoa ere zehaztu zuten: 49.700 euro urtean. Udalbatzaren ohiko bilkurak hilabete behin egitea adostu dute. Hilabete bakoitzaren azken ostegunean izango dira, 19:30ean.



### Batzorde informatzaileak eta batzordeburuak

- 1.- **Barne Erregimeneko eta Pertsonaleko Batzordea:** Pedro Bengoetxea (DA).
- 2.- **Ogasun, Ondare eta Kontuatarako Batzorde Berezia:** Iñaki Esnaola (DA).
- 3.- **Gizarte Zerbitzuen eta Berdintasunaren Batzordea:** Marilu Albizu (DA).
- 4.- **Ingurumena, Zerbitzuak eta Mantenimendurako Obren Batzordea:** Cristobal del Corte (EAJ).
- 5.- **Hezkuntza, Euskara eta Kultura Batzordea:** Ane Miren Egidazu (DA).
- 6.- **Gazteria eta Kiroletarako Batzordea:** Aitor Salegi (DA).
- 7.- **Hirigintza eta Etxebizitza Batzordea:** Pedro Bengoetxea (DA).
- 8.- **Turismo eta Geoparkeko Batzordea:** Iñaki Esnaola (DA).
- 9.- **Jaietarako Batzordea:** Iñigo Cambronerok (EAJ).
- 10.- **Herritarren Partaidetza eta Ekonomiaren Sustapenerako Batzordea:** Unai Lekube (EAJ).

### Itziariko auzo udal talde eragilea aurkeztu zen ekainaren 20an

Itziarren ere ekainaren 13an hartu zuten ofizialki kargua organo berriari legez dagozkion lau batzordekideek eta auzo-alkateak, tramite soilean. Eta astebete beranduago, ekainaren 20an, Auzo Udal Talde Eragile berriaren aurkezpen ekitaldi instituzionala burutu zen.

Hauteskundeen ostean iragarri zuten bezala, Zigor Aizpurua auzo-alkateak eta lau kidek osatutako batzordearen ondoan lan talde oso bat izendatu dute, bosteko organoa "egitura irekiagoan" txertatu nahian.

Talde eragile berria ondoko 17 kideek osatuko dute: Zigor Aizpurua Eizagirre (auzo alkatea), Amaia Arrizabalaga Badiola, Maitane Beristain Salegi, Aitziber Domingo Rementeria, Arantza Egaña Aldalur, Maitane Elorza Barbara, Itziar Garate Arrizabalo (batzordekidea), Patxi Garate Udabe, Aitor Huergo Celaya, Ihintza Irizar Beristain, Xabier Laka Egaña, Arantxa Lizarralde Larrañaga, Maider Lopetegi Albizu (batzordekidea), Inaxio Manterola Izpizua, Ainhoa Oñederra Amiano, Maite Salegi Arriola (batzordekidea) eta Jagoba Uranga Aranbarri (batzordekidea).



Prentsa ohar bidez jakinarazi dutenaren arabera, talde eragile berriaren ardura izango da Auzo Udalak dakartzan ahalmenak koordinatu eta aurrera eramatea. "Era berean, proposamen desberdinen erabakigune eta eztabaidarako esparrua izango da. Horizontalki funtzionatuko du, jendarteari irekitako bileren bitartez. Dagozkion alor desberdinen araberrako barne-antolakuntza hartuko du talde eragileak, eta garapen mailakatua izango du, eskumen eta eskuduntzak bideratzen diren heinean. Auzo desberdinen arteko orekari arreta berezia jarriko dio, taldearen barneko jatorri desberdinen parekidetasunak erakusten duen bezala".

## San Juan suaren bueltan



San Juanek irudi politak utzi dizkigute aurten ere. Bezperako suaren bueltan jende ugari bildu zen Foruen plazan eta akelarrea, dantzak, musika, jauziak... izan ziren protagonista beste behin ere. Biharamunean, berriz, Santa Katalinan izan zen hitzordu nagusia. Urteroko meza ermitaren kanpoan egin zuen Patxi Aizpitarte apaizak eta, elizkizunaren ondoren, txori-zoaz eta salda z gozatzeko aukera izan zuten bertaratutakoek.



## San Pedro bezperako hitzordua, indarberritzen



Badirudi urtez urte indartzen doala San Pedro bezperako hitzordua plaza zaharrean. Ohiturei eutsiz, zahagiak erre zituzten ekainaren 28ko gauean, 22:00ak aldera, eta segidan dantzarien saioei eman zitzaien hasiera. Haur eta gazte ugari aritu ziren dantzan txistulari, trikitalari eta dultzaineroen erritmora. Hasierako zirimiria gaindituta, jende ugari bildu zen plazan, giro ederrean.

## Kulunka Dantza Taldea ETBko Gu Ta Gutarrak saioaren finalean

ETBko Gu Ta Gutarrak programa arrakastatsuen finalerako flashmob bat prestatu zen, Kulunka Dantza Taldearen laguntzarekin. Herrian albisteak izan duen oihartzuna ikusita, eta batez ere programak gazteen artean izandako harrera beroa kontuan hartuta, Kulunkako kideengana jo dugu bizi izan duten esperientzia berri honen inguruan galdezka.

**Nolatan sartu zineten saltsa horretan? Laguntza eske etorri zitzaizkizuen?**

Otsailean Bergaran eman genuen emanaldi batean flashmob hau dantzatu genuen. Publikoaren artean ETBn lan egiten duen pertsona bat zegoen eta dantza asko gustatu zitzaion. Bere taldekideekin komentatu zuen eta bideo bat eskatu ziguten. GTG programaren finalerako aproposa zela eta, maiatzean deitu ziguten bertara dantzatzeraz joateko.

**Zer moduzko esperientzia izan da? Gustura aritu al zineten?** Oso esperientzia polita izan zen; errepikatzekoa, noski. Gu zuzeneko emanaldiak egitera ohituta gaude, eta telebistarako eta kamera aurrean dena oso ezberdina da; asko ikasi genuen.

**Zein zen zuen betebeharra zehazki? Nork parte hartu zuen flashmobearen?**

Flashmobearen jende askok hartu genuen parte: GTG programako 10 protagonistek, programako 12 langilek (aurkezlea beraiekin artean) eta Kulunkako 18 dantzariak. Koreoa prestatuta geneukan, baina aldaketa batzuk egin genizkion egoera berri honetara egokitzeko. Parte-hartzaile guztiek pauso guztiak ikas zitazela izan zen gure lana; horretarako, grabaketa baino egun batzuk lehenago taldeko bi dantzari Miramonera hurre-ratu ginen parte-hartzaile guztiei pausuak erakustera.

**Zer nolako dantzariak aurkitu zenituzten flashmoba egiteko? Erraza izan al zen guztia txukun prestatzea?**

Dantzan parte hartu zutenak ez dira dantzariak, baina flashmoba horretarako prestatua zegoen eta erraza izan zen dena martxan jartzea; denek dantzarako agertu zuten gogoak eta alaitasunak lagundu zigun batez ere.

**Lehenago ere parte hartu izan duzue antzeko esperientzietan Euskal Telebistan, adibidez?**

Beste behin ere izan ginen ETBn dantzan. Orain dela urte asko izan zen, Biraka dantza taldea ginenean. "Goenkale 10 urte" galan izan zen, Kursalen.

**Zuen taldeari oihartzuna emateko ere lagungarri izan daitezke halako lanak, ezta?**

Noski, telebistan agertzea "eskaparate" bat da. Eta batez ere herrian oihartzun handia izan du.

**Finalerako flashmobaz gain, ETBk abiatu berri duen "Gutarrak kanpinean" udako saioan ere parte hartzerik izan duzue? Edo aipatu dugun finalerako saioa prestatzearekin batera amaitu zen zuen arteko elkarlana?**

Finaleko flashmoba egin ondoren pozik agertu ziren gurekin ETBkoak eta beste lan bat ere eskatu ziguten. Baina oraingoan ez zen dantza egiteko, koreografia bat prestatzeko baizik. "GTG kanpinean" programa berrirako promorako (anuntziarako) koreoa prestatu dugu. Ikusiko zenuten telebistan, GTG-



eko partaideak furgoneta baten barruan dantzan agertzen dira bertan.

**Badirudi ekaina ekimenez beteta izan duzuela Kulunkako kideok. Telebistarako egindako lanez gain, ikasturte amaierako ikuskizuna ere eskaini zenuten herrian, Aldats pilotalekuan... Atsedetik hartuko al duzue uda partean ala lanean jarraituko duzue hilabeteotan ere? Eta irailetik aurrera, zer asmo du Kulunkak?**

Ekaina lanez tope izan dugu. Guretzat urteko lanik handiena den jaialdiaren azken prestaketekin geundela ETBkoa atera zen. Kulunka dantza eskolak udan jai hartzen du, baina nagusien taldea uztailan ere lanean arituko da. Urte amaieran ere baditugu emanaldi potoloak.

Urriaren 3an, adibidez, "KABARET" emanaldi musikala aurkeztuko dugu Deban. Bertan, Kulunka dantza taldeak, Bergarako udal banda eta Orkestra Sinfonikoko 110 musikaririk eta 60 kantari eta aktorek 60garren hamarkadako kafe-antzerki bateko gaugiroa birsortuko dute. Azaroaren bukaeran Arrasaten egingo den "La alegría de la huerta" zarzuelaren dantzari taldea izango gara.

## 200 bat parte-hartzailek osatu dute VIII. Itxasmila Igeriketa Zeharkaldia

Uztailaren 4an (larunbata) jokatu zen Debako VIII. Itxasmila Igeri-Zeharkaldia. Hamaika urtetik beherako igerilariak 100 metroko zeharkaldia burutu behar izan zuten, 11-14 urte artekoak 500 metrokoa eta nagusiek, berriz, bi proba izan zituzten aukeran: 1.850 metrokoa bata, eta 3.700 metrokoa bestea (bi itzuli burutuz).

Iaz baino eguraldi eta itsaso bareagoa lagun, helduen kategorian guztira 199 lagunek lortu zuten zeharkaldia osatzea -tartean herriko hainbat igerilari zirela-. Haigor Aranguren Fuertes (Donostia) nagusitu zen proba luzean, ibilbidea 47 minutu eta 12 segundoan eginda; eta 1.850 metroko proban, Pablo Etxeberria izan zen azkarrena (0:23:13). Emakumezkoetan, Irati Mendia donostiarra izan zen lehena (00:53:12) proba luzean, eta 1.850 metroko proban Adriana Campoy (00:28:19) nagusitu zen. Sailkapen nagusia [www.sailkapenak.com](http://www.sailkapenak.com) atarian kontsulta daiteke.

Aurten ere, igeriketa probak Esklerosi Anitzaren Fundazioak bultzatutako "Busti Zaitetz" kanpainarekin bat egin du.



Ander Salegi



Ander Salegi

## Abuztuarekin batera abiatuko da II. Surfing Deba Festa

Abuztuan ospatuko da Surfing Deba Festaren bigarren edizioa eta Yako Ondar Jaixa Egunarekin abiatuko da jaialdia, abuztuaren 1ean (larunbata).

Egun osoko egitaraua antolatu dute. Besteak beste, ur jarduerak praktikatzeko aukera izango da, Euskal Herriko SUP (stand up paddle) race txapelketa jokatu da eta iluntzean musikak hartuko du protagonismoa. Kontzertua eta DJ saioa izango dira, Ondargainen.

Abuztuaren 8an izango du jarraipena Surfing Festak. Slackline, piraguismoa eta musika kontzertua izango dira aukeran. Eta hilaren 9an, igandea, Xtreme Egunak hartuko du lekukoa. Igeriketa probak egingo dira ibaian, beste hainbat ekimenen artean.



## 120.000 euroko aurrekontua eta zuzendaritza batzorde berria Amaiak Baten



Ander Salegi



Ander Salegi

Pasa den ekainaren 27an (larunbata), Amaiak Bat taldeak urteroko batzar orokorra ospatu zuen Kultur Elkartean. Besteak beste, urteko diru kontuak aztertu eta adostu zituzten bertan: beste urte batez bazkideen kuotak ez igotzea erabaki zuten eta datorren denboraldirako 120.000 euroko aurrekontua aho batez onartu zuten.

Nobedade gisa, taldearen zuzendaritza batzordeko kide berriak ere izendatu zituzten. Aurrerantzean, Jose Mari Soto Aperribay izango da Amaiak Bateko presidentea -Dabi Sagarnari lekukoa hartuta-; Ignacio Esnaola arituko da presidenteorde eta

Iñaki Irigoienek egingo ditu idazkari lanak. Batzar orokorraren ostean, Aldats pilotalekuan bazkari herrikoiarekin eta sari banaketarekin agurtu zuten denboraldia.

### Gipuzkoako Federazioaren saria

Bestetik, Amaiak Bateko erregional mailako taldeak sari berezi bat jaso zuen ekainaren 26an ospatutako Gipuzkoako Futbol Federazioaren Batzar Orokorraren. Denboraldian Debako taldeak erakutsi duen kiroltasuna eta joko garbia saritu du Federazioak, aipatutako kategorian txartel gutxien jaso duen taldea izateagatik.



## Emakumezkoen defentsarako arte martzial (EDAM) ikastaroa eskainiko dute ikasturte berrian

Emakumezkoen Defentsarako Arte Martzial (EDAM) ikastaroa antolatu du Debako Udaleko Berdintasun Sailak, Kirola eta Gazteria Sailaren laguntzarekin. Debako eta Debabarrena eskualdeko emakumeei zuzenduta dago ikastaroa eta Garikoitz Sillero TEKNAHiren kirol arloko irakasle eta arduradunak gidatuko du.


Klaseak urrian abiatuko dira -Kirola eta Gazteria Sailak utzitako instalazioetan-, baina interesatuek irailaren 7a baino lehen eman beharko dute izena Debako Udalean edota Udalaren web orrialdean. Izen-ematea irekitzearekin batera, datu zehatzagoak emango dira, hala nola ikastaroaren prezioa, klaseen iraupena eta maiztasuna.

Berdintasun Sailak jakinarazi duenez, Udalaren berdintasun planean hitzartutako lan leerroak betetzeko helburuarekin antolatu da ikastaroa. Egitasmoak,

hain zuzen ere, "etxeko indarkeriaren eta sexu erasoaren prebentzioa eta laguntza hobetzea" du helburu.

Horren harira, 2015eko martxoaren 10ean Erakundeen Arteko Koordinaziorako Protokoloa sinatu zuten Debako Udalak, Mendaroko ospitaleak, Deba eta Itziaroko osasun-zentroek (Osakidetza) eta Eibarko Ertzaintzako polizia-etxeak. Protokoloarekin aipaturiko lan-lerroan sakontzen da, baita konpromiso argiak eta sendoak ezarri ere. Eta esparru horretan sartzen dira, adibidez, autodefensa feministako ekintzak edo sensibilizazio proiektuak hezkuntza zentroetan.

Konpromiso horiek gauzatzeko bidean EDAM ikastaroa beste urrats bat dela ulertuta, antolatzaileek deia egin diete Debako eta eskualdeko emakumeei "ahalduntzeko eta bere buruan segurtasuna irabazteko tresna den kirol orekatu hori" praktikatzera.



## Aitor Etxeberriaren “Deabruaren kantuak”, Santa Maria elizako klaustroan



Hamalau urte zituela egin zuen bere lehenengo erakusketa Aitor Etxeberriak (Mendaro, 1958). “Deban izan zen, kuriosidadez, Ostolazan klaseak hartzen nituen bezala, ikasturte amaierako erakusketan parte hartu nuen eta”, oiroitzen du artistak berak.

Harrezkero, ibilbide oparoa egin du mendarorarik artearen munduan. Erakusketa ugari egin ditu azken urteotan, Euskal Herrian ez ezik baita atzerriko (Mexiko, Madril...) galerietan ere. Eta, besteak beste, irakasle lanetan ere aritu izan da, Urretxun pintura tailerrak zuzentzen, adibidez.

Dena den, Aitor Etxeberriak ez du artea ogibide. “Enpresa batean egiten dut lan Elgoibarren, eta hau dena hobya da niretzat”, azaldu du, arlo horretan saiakera egiteko nolabaiteko “ausardia falta edo” aitortu duen bitartean.

Estilo figuratiboko lanekin egin zituen Etxeberriak lehen urratsak ibilbide artistikoan, urteen joanean abstrakzioaren mundura jauzi eginez eta eskulturaren mundura ere sarturtenak eginez.

Oraingoan, pintura kuadro abstraktoen sorta bat ekarri du Debara. Bi serie ezberdin uztartu ditu erakusketan; “Inguruak izena jarri nion bati iaz (Zumaian izan zen ikusgai), eta beste seriea *Grabitazioak* izeneko da. Ez dute zerikusirik euren artean”, aipatu du obraren egileak.

Tamaina ezberdineko lanak daude ikusgai Debako elizako klaustroan –txikienak serieetan bilduta, eta handienak bakarka aurkeztuta-. 2013tik gaur egun bitartean margotutakoak dira guztiak; akrilikoak oihalean. Eta izenik gabe ageri dira klaustroko paretetan zintzilikatuta. Erakusketa aurkezteko

aukeratu duen izenburua ez da, ordea, oharkabean pasako ikusleen begietara: “Deabruaren kantuak”. Izenburu sugerente edo bitxia, batik bat erakusketa non aurkezten duen ikusita.

Horren inguruan galdetuta, “izen bat asmatu behar nuen, eta lekua zein izango zen ikusi eta gero jarri nion izenburu hori”, erantzun du. Jarraian argitu du, baina, ez dela “deabru” hitzaren betiko kontzeptuari erreferentzia egiten saiatu. “Koadro bat bada ipuina, kantua... lekua bera aproposa da, eta deabru izena bai, baina ez betiko esanahiarekin, pintatzera eramaten zaituen barneko egonezinari erreferentzia bat eginez baizik”.

### “Lienzoaren amildegira salto eginez”

Elgoibarren aritzen da sortzaile lanetan Aitor Etxeberria, aurrez zer sortuko duen jakin edo erabaki gabe. “Pintore bakoitzak bere lan egiteko modua dauka. Nik une batean erabaki nuen bozeturik ez egitea, konturatu nintzelako naturaltasun guztia galtzea zela gero bozeturik berriz ere lana kopia egin behar nuenean. Nahiago dut lienzoaren amildegira salto egin zuzenean. Lienzoaren aurrean sortzen hasten naiz ni. Gero bai, estetiki lan guztiei ildo (linea) bat ematen saiatzen naiz”.

Uztailaren 4an inauguratu zen “Deabruaren kantuak” erakusketa, Etxeberriaren presentziarekin. Eta katalogo bat ere aurkeztu dute, artistaren ibilbidea eta obraren nondik norakoak ardatz hartuta –Turismo bulegoan eskura daiteke-. Eliza zabalik dagoen orduetan ikus daiteke erakusketa. Astelehenetan izan ezik, uztailaren 17:00etatik 19:00etara egongo da zabalik astean zehar, eta igande eta jaiegunetan ere irekita dago.

**Argazkilaria**  
Ander Salegi

(argazki erreportaiak, photoshop-eko erretokak..)

Email: [andersalegi@gmail.com](mailto:andersalegi@gmail.com)

Tf: 685 703 843

**Jarri zure publizitatea**  
**Berriketan aldizkarian!**

*Zuhatz*

943 191 383  
[berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com)

## Txapela jantzita itzuli da berriz ere Alaitz Escudero, Elorriotik oraingoan



Iazko arrakastaren ondoren, bigarren aldiz antolatu zen uztai-laren 4an Elorrioko Trikitilari Gazteen Txapelketa, Elorrion bertan (Bizkaian). Bederatzi trikitilari bikotek parte hartu zuten, eta egunean bertan fandango bat joz erabaki ziren txapelketan aurrera jarraituko zuten sei bikoteak; guztiak ere 20 urtetik beherakoak.

Sei horien artean, Nafarroako bikote bat eta bost




bikote gipuzkoar aritu ziren trikitixa, porrusalda eta popurria jotzen. Eguraldi ederra aprobetxatuz eta trikiti soinu paregabeaz arratsaldea igaro ondoren, Orioko Julen Alonso eta Debako Alaitz Escudero izan ziren txapelketako aurtengo irabazleak. Aipatutako azken sei bikote sailkatuen artean, bestetik, Itziarko Naiara Mantzizidor ere aritu zen soinuarekin, Aizarnazabalgo Jugatz Oleaga panderojolea alboan zuela.

## Aitor Oñederraren "I said I would never talk about politics" animaziozko lana, Kimuak katalogoan

Zazpi dira Kimuak zigilupean aurten banatuko diren film laburrak, aurkeztutako 54 proposamenen artean egindako aukeraketaren arabera, eta horien artean dago Aitor Oñederraren "I said I would never talk about politics".

Kimuak egitasmoa 1998an sortu zen, euskal film laburrak nazioartean sustatu eta banatzeko helburuarekin. Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak, Etxepare Euskal Institutuaren bitartez, eta Euskadiko Filmategia Fundazioaren laguntzarekin antolatutako programa honetan EAEn urtean ekoiztu diren lan guztiek har dezakete parte. Edizio bakoitzean, epaimahai aske batek egindako aukeraketarekin osatutako katalogo bat argi-



taratzen da -18. edizioa da aurtengoa- eta laburmetraien aurkezpen ofiziala datorren irailean izango da, Donostiako Zinemaldian.

Aitor Oñederrarena izango da Kimuak 2015 katalogoko animaziozko lan bakarra; "I said I would never talk about politics", egungo klase politikoari eginiko kritika garratza, 'Don Mariano' protagonista duena.

Debako sortzailearen lanaz gain, aurtengo katalogoa beste sei film laburrek osatuko dute: "5 segundos" (David Gonzalez), "A revenge story" (Lander Camarero), "Duellum" (Tucker Dávila Wood), "Foxes" (Mikel Gurrea), "Lost Village" (George Todria) eta "Luz a la deriva" (Iñigo Salaberriarena).



**JOSE A. GALDONA AIZPURUA**

HORTZ-SENDAGILEA  
Odontologia orokorra,  
kirurgiak eta implanteak

Hondartza Kalea, 20 - behea  
Tel.: 943 192 819  
20820 Deba



English Academy

**NORTH STREET ENGLISH**

Telf. 675 714 031 - Ifar kale, 15 - Deba



## Bisitan izan ditugu Hodei Magoa eta Tiritatxo



“Udara kulturaz blai! Haur eta gazte, hurbildu alai!” urteroko leloari helduta, Zuhatza Euskara Elkartek aurten ere ekimen ezberdinak antolatu ditu uztailean, euskarazko aisialdi eskaintza aberas-

teko asmoz. Hilaren 7an, adibidez, Hodei Magoa eta Tiritatxo izan ziren Deban bisitan, eta ikuskizun berezia eskaini zuten zumardian.

Magiaren mundura hurbiltze-

ko aukera izan zuen publikoak, eta trukekin gozatzeaz gain dantza egiteko tarterik ere eskaini zuen saioak. Udako arratsalde eguzkitsu bikaina izan genuen gainera.

## Ikasturtea agurtu dute mintzalagunek

Egitasmoaren ikasturte amaiera ospatzeko, ekainaren 11n pin-txo-potearen aitzakian elkartu ziren herriko mintzalagunak. Azaroan abiatu zuten programa eta harrezkero bi taldetan aritu dira euskara elkarri emanez, lagun artean, astero-astero hitzorduak egiten. Aldameneko argazkian dituzue aurten eus-kahalduntzen aritu diren zenbait herritar.

Atsedean hartuko dute orain, uda partean. Baina ete-naldi bat baino ez da izango, ikasturte berriarekin batera hel-duko baitzaio berriz ere Mintzalaguna ekimenari.

Bien bitartean, Zuhatza Euskara Elkartek eskerrak eman nahi dizkie egitasmoan aritu diren kide guzti-guztiei, euren borondate onak eta gogoak ondo merezita baitu erreko-nozimendua. Jarrai dezagun guztion artean aurrerantzean ere herria girotzen eta gure hizkuntza den euskara zabaltzen eta maitatzen!



## Martxa betean Kolorez Blai udalekuetan!



Kaixo *kolorezale* guztioi:

Iruñeko txupinazoarekin batera eman diegu hasiera aurtengo Kolorez Blai udalekuei. Eguzki bete zein euri, hor gabiltza martxa betean, kaleetan gora eta behera kantu kantari, salto eta korrika bestetan.

Urtez urte taldea handituz doa, eta kaleak kolorez betetzen jarraitzen dugu. Oso pozik gaude, gustura, eta honek indarra ematen digu aurrera jarraitu eta ekintza berri gehiago sortzeko.

Zorionak eman nahi dizkiet begirale guztiei, lan handia egin baitute eta euren arteko giroa ezin hobea da. Lan talde bikaina! Baita Zuhatza Euskara Elkarteari ere, orain hiru urte elkarrekin hasi genuen proiektu txikiak gaur mila kolore baititu!

*Emili Sukia (Kolore Anitz)*



## “Arrano libre eta zabalik!” aldarrikatu dute, ixte aginduaren aurrean

Espainiako Auzitegi Nazionalak 35/02 auziko sententzia atera zuenetik urtebete eskas pasatuta, ildo beretik jo du Auzitegi Gorenak ere. Haren erabakia berretsi du ekainean emandako 728 orriko epaian, aldaketa txiki batzuk egin dituen arren. Defentsa abokatuek aurkeztutako helegitea atzera botata, 107 herriko taberna konfiskatzeko agindua eman du, tartean Debako Arrano elkartearen (Handikona) egoitza, “ETAren egitura” finantzatzeagatik. Eta, bestetik, urtebete eta hiru hilabete eta urtebete eta hamar hilabete arteko kartzela zigorra ezarri die 20 akusaturi, “erakunde terroristako” kide izatea edo hari laguntzea leporatuta.

Berri agenzia espainiarrek Espainiako Justizia Ministerioiko iturriak aipatuz zabaldu dutenez, herriko tabernak itxi eta enkantean ateratzea izango da jarraituko duten prozedura, hortik ateratako etekinak “(Espainiako) Estatuaren mesedetan” erabiltzeko. Hori aginduz auto bat kaleratu behariko du aurrez Auzitegi Nazionalak.

Auzitegi Gorenaren epaia salatuz, herrian protesta mobilizazioak izan dira azken asteotan “Arrano libre eta zabalik!” lelopean. Debako Arrano Elkarteak gogorarazi duenez, “herriko tabernak ezkerreko independentisten bilgune izan dira, herrietan auzolanaren erakusle, herriko jai eta ekintza des-



berdinetan aktibo izan diren kultur eragileak. Espazio irekiak izan dira, hamaika dinamika egin dira bertan. Honekin guztia-ekin urteetan egindako lan guztia desagerrarazi nahi dute. Norbanakoen kontra ere jo dute, espetxe zigorra ezarriz zenbaiti. Eskubide zibil eta politikoen kontrako eraso garbia da aurrean duguna”.

Ekainaren 27an elkarretaratzea egin zen Foruen plazan, baita giza-katea ere aurrez, epaia ezagutu zenean. Bestetik, gai honen inguruko mozio bat prestatu du Arrano Elkarteak eta bilerak egiten ari da herriko alderdi politikoeekin, “ahalik eta babes zabalena lortzeko helburuarekin”.

## Ohorezko matrikula batxilergoan

Elgoibarko institutuko ikasleentzat bukatu dira ikasturtea eta azterketak, bukatu da selektibitatea, baina baita ondoren Maltara egin duten bidaia ahazteztina ere. Orain oroitzenak bakarrik gelditzen zaizkie; batzuk garai neketuen ingurukoak, baina orokorrean alaiak. Argazkiko ikasle hauek ere iritzi berekoak izango dira, ohorezko matrikula lortu baitute batxilergoan.


Argazkian, ezkerretik eskuinera, Leire Legarra, Nora Kortaberria, Iñaki Amilleta, Andrea Arregi eta Maddi Astigarraga ageri dira. Elgoibarko Arreiturre institutuko ikasleak dira bostak, eta horietako bi debarrak dira (Amilleta eta Astigarraga). Zorionak boskoteari eta zorionak institutu bereko gainontzeko ikasleei ere, guztiek gainditu baitute selektibitatea.



## Elkartasun azoka Sahararen alde



Hainbat herritar boluntarioren ekimenez, bigarren eskuko azoka solidarioa egin zen uztailearen 4an (larunbata), udaletxearen azpian. Produktu ezberdinak jarri zituzten bertan salgai, liburuak gehienak, eta bertan bildutako dirua Saharara bideratuko da. Saharar herriko bandera ez ezik, hainbat argazki eta idatzitako presente egon ziren salmenta postuen artean.



## Agenda

## Uztailak 24, ostirala

-19:30. **Azken ostirala.** Euskal preso eta iheslari politikoen eskubideen aldeko elkarretaratzea. Foruen plazan.  
-21:30. **Kukai: "Gelajauziak"**, plaza zaharrean (Iturri ondoan).

## Uztailak 25, larunbata

-23:00. **Bandaren dantzaldia.** Foruen plazan.

## Uztailak 27-31

-Deba Hiria pala motz txapelketa, Aldats pilotalekuan.

## Uztailak 30, osteguna

-22:00. **Nazioarteko Folklore Jaialdia.** Zumardian.

## Abuztuak 1, larunbata

-**Merkatu Txikia**, estalitako pasealekuan. Goizean.  
-**Yako Ondar Jaixa**, hondartzan.

## Abuztuak 6

-20:00. **Debako XXXII. Udako Musikaldia.** Organo Kontzertua: Gerardo Rifón organojolea eta Landarbaso abesbatza. Elizan.

## Abuztuak 7, ostirala

-22:00. **Kantuz Sarea Osatzen** ekitaldia, plaza zaharrean.

## Abuztuak 8 eta 9

-II. **Surfing Deba Festa.**

## Erakusketak

-**Aitor Etxeberria** artistaren lanak ikusteko aukera egongo da Elizako klaustroan, uztailean eta abuztuan. Informazio gehiagorako: ikus aldizkari honetako 14. orrialdea.

-Agirre Jauregiko erakusketa gelan **kanboarren lanekin osatutako erakusketa** bat jarriko dute ikusgai uztailean. Informazio gehiagorako: Debako Turismo Bulegoa.

## Geoparkeko bisita gidatuak

Euskal Kostaldeko Geoparkeak bisita gidatu ezberdinak eskaintzen ditu udan: Flyscharen ibilbidea itsasontziz, irteera geologikoak,

marearteko zabalgunea... Irteeren gaineko informazio gehiagorako: [www.geoparkea.com](http://www.geoparkea.com) edo Debako Turismo Bulegoa (943 19 24 52).

## Udako ordutegia liburutegian

-Ostolaza Udal Liburutegiak udako ordutegia izango du irailaren 7a bitarte.

\*Liburutegi orokorra:

astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara izango da zabalik. Haur liburutegia, berriz, 10:00etatik 13:00ak arte.

## Kopraixak Itziarren

## Uztailak 31, ostirala:

19:30. Pintxo-potea. 23:00. Kontzertua: Morau eta Beñardo, Burugorri.

## Abuztuak 1, larunbata:

11:00. Haur krosa. 12:00. Andutz Igoera. 17:30. Pilota partidak. 19:30. Txupinazoa. Marixiren jaietsiera. 20:00. Meza eta salbea. 00:00. Danborrada herrikoia. Ondoren, dantzaldia Egan taldearekin.

## Abuztuak 2, igandea:

07:00. Zezenak. 11:00. Meza. Ondoren, txakolin dastaketa eta harri-jasotzailea. **Arratsaldean:** errektoriak eta zezenak. **Gauean,** kontzertua: Ruper Ordorika (frontoian).

## Abuztuak 3, astelehena. Bikoteen Eguna:

**Goizean:** kalejira Jan Eta Edan txarangarekin. Ondoren, herriko sagardogileen sagardo dastaketa, bertsolariek lagundurik. 14:30. Herri bazkaria. **Arratsaldean:** bikoteen arteko jolasak, aurrekua eta zezenak. **Gauean:** erromeria Izer eta Alabierrekin.

## Abuztuak 4, asteartea. Umeen Eguna:

**Goizean:** umeen arteko jolasak, entzierroa eta zezenak. **Arratsaldean:** umeen danborrada, herriko dantzariak, aerobic erakustaldia. Zezenak. **Gauean:** erromeria DJ Burundarekin.

## Abuztuak 5, asteazkena. Gazteen Eguna:

**Goizean:** puzgarriak, bizikleta karrera mistoa eta zezenak. Ondoren, paella lehiaketa. **Arratsaldean:** koadrilen arteko jolasak, aurrekua eta zezenak. Gauean erromeria, playback txapelketa. 07:00. Zezenak.

## ZAINZAKO BOTIKA

Egunez, 09:00etatik 22:00etara



Zalduegi: **uztailak 24, 25, 26.**  
**abuztuak 3, 4, 5, 6.**

Burgoa Zuazo: **uztailak 20, 21, 22, 23.**  
**abuztuak 7, 8, 9.**

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Toribio Etxebarria, 4 (943 20 23 44)

## DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI: 669 262 201


BURGOA ZUAZO: 667 338 890

Larunbat goizetan beti bat irekita:

ZALDUEGI: uztailak 25  
abuztuak 1

BURGOA ZUAZO: abuztuak 8 eta 15

9:30 - 13:30



**SUKIA**

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 13  
Tel.: 943 192 386  
Deba (Gipuzkoa)



**ASKETA, S.L.**

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

## OFICINAS Y EXPOSICION:

Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460  
E-mail: asketa@telefonica.net  
www.asketa.net

## ALMACÉN:

Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9  
20850 MENDARO (Gipuzkoa)






**MULTIÓPTICAS UZURI**

OSTOLAZA, 7 • 20820 DEBA  
TEL. 943 19 21 92

**MULTIÓPTICAS Uzuri**

ZURE  
ENTZUMENA  
ZAINTZEN




**Haztik**  
ZURE EKODENDA

San Roke Kalea 6, DEBA  
tel.: 943 02 99 63  
e-mail: haztik@gmail.com



**kutxa**  
kutxabank



**AUKERA INMOBILIARIA**

www.aukera-inmobiliaria.com  
Aukerarik onena!

943 12 13 95

API 447



**URDAITEGIA  
AITTOLA  
HARATEGIA**

Astillero, 3  
Tlfnoa.: 943 191 776  
20820 DEBA



**LENTZERIA**  
**Azoka**  
**MERTZERIA**

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA



**urlo**  
SERVICIOS INMOBILIARIOS  
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

Sokagin, 2 bajo Apartado 3  
20820 DEBA

Tel.: 943 192 471  
Tel./Fax: 943 192 303  
urlo@urlosi.net

Higiezin Zerbitzuak  
Aholkularitza  
Higiezin Agentzia  
Komunitateen administrazioa  
Tasazioak/ Balioztaketak



**RAIKETAK S.L.**  
**SAGARMIÑA**

Hondartza, 3-4 behe - Apartado, 31  
20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Tel./Fax: 943 192 249  
Mugikorrek: 629 639 685 / 629 641 940  
sagarmina@sagarmina.com  
www.sagarmina.com



**Haizea**  
estetika

Tlf. 943 029 607  
Iturkale 22. 1 eskubia  
sarrera Zesterokua plazatik



**ISABEL FRUTADENDA**

Sokagin Kalea, 2 behe. 20820 DEBA  
943 029 186

**AZKUNE**  
FRUTA PRODUKIDUA ETA ZERBITZUA  
197Setik zuekin!



**ARKATZA**  
Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3  
943 192 057  
20820 DEBA



**Calbeton**  
JATETXEA

**Agustín Larrañaga Elorza**

Denboraldiko platera  
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea  
Tlfnoa.: 943 191 970  
20820 DEBA (Gipuzkoa)



**L.A.**  
**LARRAMENDI ANIAK, S.L.**

- LIXATUAK
- BERNIZATUAK
- PARKET
- PARKET FLOTANTEAK

Tlfnoa.: 943 021 959  
Mobila: 670 411 786  
Tel.-Fax: 943 191 782

ARTZABAL AUZO  
20820 DEBA (Gipuzkoa)



**sasoi**

ekodenda,  
dietetika,  
belardenda

ZERBITZUAK:

- \* Fisioterapia: tekarterapia (INDIVA)-drenaje linfáticoak -lesioak -...
- \* Gimnasia hipopresiboak
- \* Dietista
- \* Podologia

Lersundi, 14 943 19 24 42 sasoi@hotmail.com



# LANTALDE PROFESIONAL BIKAINA IZEN-ABIZENEKIN



**ZERBITZU INTEGRAL AKREDITATUA**

**ETENGABEKO ORDUTEGIA**



**Astelehenetik ostiralera:**  
**8:00etatik 22:00etara**

**Zapatuetan:**  
**10:00etatik 14:00 etara**

**Doctor Antonio Murillo**

Hezur Birsorkuntza eta ehun bigunen Maneiuko Zuzendaria.  
**Lleidako Unibertsitatea eta Madrilen.**  
Periodontzia Koordinatzailea, Odontologian Lizentziatua.  
**Alfonso X.a Unibertsitatea, Madril.**  
Implantologia Masterreko Irakaslea.  
**Lleidako Unibertsitatea.**  
Kirurgia Masterreko Irakaslea.  
**Salamanca Unibertsitatea.**  
Unibertsitate Instituzioetako Irakasle gonbidatua.  
**Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean eta Bartzelona, Sevilla, Almeria, Lleida, Leon, Malaga... Unibertsitateetan.**

**Doctora Ainhoa Zulueta**

Odontologian Lizentziatua. **Euskal Herriko Unibertsitatea.**  
Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian, Periodontzian, Implantologian. **Leongo Unibertsitatea.**  
Diplomatua Aho Kirurgian. **Bartzelonako Unibertsitatea.**  
Hortz-Estetikan Diplomata.  
**Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean.**  
Hortz-Estetikan Diplomata.  
**Autran Institutua, Bartzelona.**  
Etengabeko Formakuntza.  
**New York-eko Unibertsitatea.**  
Oklusioan Graduondoa.  
**Anibal Alonso Doktorea.**

**Eibarko Dendarien Elkarte**  
ABANTAILA HANDIAK ELKARTEAREN TXARTELAREKIN ORDAINDUZ  
**Galdetuiguazu!**



**MUTUAK ETA ASEGUURAK**

GLOBAL CARD, OCASO, EMESA PREVENCIÓN, CARREFOUR LIFE, AZKARAN, FRATERNIDAD, IMQ, SANTA LUCÍA, PREVISORA BILBAINA, AEGONSTONEBRIDGE, AVANTSALUD, PADI...  
**Galdetuiguazu!**



**IRAZABAL**

clínica dental

**FINANTZIAZIO BEREZIA**

Abantaila ekonomiko handiak eta finantziario aukera ezinhobeak. **GALDETU**

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR - Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com